

## **Birziklatze neurrietan sakondu eta errefusaren edukiontzia ixteko erabakia hartu du Andoaingo Udalak**

Hondakinen bilketa sistema hobetu eta birziklatze tasa handitzeko neurriak martxan jarri ditugu azken urteetan Andoainen: 2016. urtean hondakin organikoa (edukiontzi marroia) bereizteko edukiontziak ezarri genituen herri osoan; egun edukiontzi horiek erabiltzeko 2.000 txartel baino gehiago daude banatuak eta ordutik hona gaikako bilketaren emaitza asko hobetzea lortu zen, %27tik %42ra igaroz. Horrekin batera, sortzaile bereziei ere organikoa modu zuzenean biltzen zaie, euren komertzioen atarian bertan. Pasa den abenduaren 14an, berriz, EHBildu, EAJ-PNV, Ganemos eta Irabazi alderdiek sinatutako akordio bati esker, "Gugandik Hasita" kanpaina martxan jarri genuen.

Batzuek emaitza onak eman dituzte, oso onak; baina ez dugu ahaztu behar oraindik ere badugula zer hobetua Andoaingo Udalak 2013 urtean adostu zuen helburua lortzeko, alegia, 2016 urterako %60ko birziklapen tasara iristeko. Eskuaratean ditugun ditugun arabera, %42koa da gaur egungo Andoaingo birziklapen tasa, eta horrek, noski, gure politiketan sakontzeko betebeharra ezartzen digu.

Horregatik, iritsi zaigu urrats berri bat emateko tenorea. Pasa den martxoan errefusaren edukiontzia itxi eta auzo batzuetan froga pilotoa jarri genuen martxan, zehazki, Sorabilla, Alejandro Calonje eta Olagain auzoetan. Bizilagunen konplizitate eta konpromezuari esker, oso emaitza onak eman ditu froga piloto honek:

- **Calongen %39tik %63ra**
- **Sorabillan %22tik %58ra**
- **Olagainen %44tik %78ra**

Espero zitekeen bezela, errefusa edukiontziaren erabilera kopurua gutxitu egin da; egunero hustutzetik astean 3 aldiz hustutzera pasa baikeitezke, familia gehiengok errefusaren edukiontzia astean 1 edo 2 aldiz erabili baitu.

Beraz, ziurtatu dezakegu sistema baliagarria dela herri osora zabaldu ahal izateko. Horrela proposatu genuen Zerbitzuetako Batzordean eta proposamena gehiengoz onartu zen EHBildu, EAJ-PNV, Ganemos eta Irabaziren aldeko botoei esker.

Hori dela eta, Tolosaldeako Mankomunitatearekin elkarlanean, azarotik aurrera, errefusarentzat den edukiontzi grisa herri osoan zabalduko da. Zerraila izango dute eta astean lau aldiz ireki ahal izango du familia bakoitzak, nahi duten egunean. Alabaina, behar bereziak dituzten familiek nahi adina aldiz ireki ahal izango dute horretarako baimena eskatuz gero.

Honezkero organikoa sailkatzeko txartela duten herritarrek txartel berbera erabili ahal izango dute edukiontzi gris hauetan; aldiz, oraindik txartela ez dutenei, gutunean bidaliko zaie etxeetara eta kubo marroia hartzeko, berriz, udaletxera gerturatu beharko dute.

Ez dugu zalantzarik egiten: neurri honekin, egun sailkatzen dugun zaborra baino gehiago sailkatuko dugu eta modu horretan, gure ingurumenari fabore egiteaz gain, herri garbiago eta osasuntsuago bat ere izango dugu.